

Segi, ihote!


Hiriberrin, Altsasun, Olatzagutian eta Ziordian
ihoteak ospatuko dira / 2-9

IHOTEAK

Ihote gehiago! Ez gorde mozorroak


Ihoteen egun handiak pasa badira ere, oraindik mozorroen ospakizuna ez da bukatu. Larunbatean ihote ospakizunak segida izanen du, hiri ihotea izanen baita Hiriberrin, Altsasun, Olatzagutian eta Ziordian



 **EGOKI**
Ventanas PVC Leihoak
www.ventanasegoki.com


KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea









NI PUBLIKOKOANAIZ

SORTU NAHI DUZUN ESKOLA

• HURBILA

Etxetik bertara eta doako eskola-garraio segurua bermatuta. Hurbiltasunean heziz.



• TEKNOLOGIKOA, BERRITZAILEA ETA IKERTZAILEA

Ikasleei gaitasun digitala garatzen eta ikaskuntza-prozesuan teknologia era berritzaile, kritiko eta seguruan erabiltzen lagunduz; paradigma-aldaketa bat non pixkanaka ezartzen ari diren ikasNOVA ikasgelek erantzuna ematen laguntzen duten. Etorkizunera begiratzen duena saiakuntzen bidez –robotika, ikerketako eta nazioarteko batxilergoak– STEM bokazioak sustatuko dituzten metodologia aktibo berrien bidez ikasteko.



• BIKAINA

Ikastetxe bakoitzean neurrira egindako prestakuntza duten dozentarik onenak eta hezkuntza-programa aitzindariak dituenak –lurraldeko irakasle-ikasle ratorik onena 1.000 ikasleko 110 irakaslerekin–, funtsezko gaitasunen ikaskuntza xede dutenak, curriculum-ikuspegi malgu eta deszentralizatuarekin.



• ERABATEKOA

Zure seme-alabekin batera hazten den hezkuntza –Otik 18 urtera bitarteko sarea–, pertsona bakoitzari egokitzen zaiona eta hezkuntza-ziklo guztiak barne hartzen dituena.



• ELEANITZA

Edozein hizkuntzatan ikasteko aukera ematen duena –programa eta eredu elebidunak eta hirueledunak (gaztelania, euskara, ingelesa, frantsesa, alemana)–.



• INKLUSIBOA ETA ANITZA

Inor kanpoan uzten ez duena. Haurren eskubideak eta ezgaitasuna duten pertsonen eskubideak integratzen dituena. Premia bereziak dituzten ikasleentzako egituren sare zabala duena, baliabide profesional eta teknikorik onenak dituena ikasle guztien erabateko garapenean hezkuntza-parekidetasuna ziurtatzeko eta guztiok berdinarik eta aldi berean ezberdinak egiten gaituena.



• ERALDATZAILEA

Metodologia aktiboan aldeko apustua egiten duen hezkuntza, hezkuntza-sistema publikoa eraldatzen duena, non zuk eskola eraiki eta etengabeko ikaskuntza-komunitatea sortzen duzun.



• OSASUNGARRIA

Elikaduran eta osasunean heziz –bertako produktuekin eta kilometro zero produktuekin egindako menu osasungarriak eskaintzen dituzten jangelak, in situ dauden sukalde propioekin– eta bertako produktu freskoekin.



• PARTE-HARTZAILEA

Zuk eskola eraiki eta komunitatea sortzen duzu –partekatutako heziketa, jarduera kultural, deportibo eta sozialak–.



• BERDINZALEA

Berdintasuna garatzeko hezkidetza-balioetan hezten duena, ikastetxeetan genero-baldintzarik ez duena.



nipublikokoanaiz.nafarroa.eus

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua









GU IKASTOLA
GU IÑIGO ARITZA



ATE IREKIAK

MARTXOAK 3
16:00-17:00

MARTXOAK 4
11:00-12:00

ESKATU
HITZORDUA


www.inigoaritza.eus


 948562951 / 689454168


ikastola@inigoaritza.eus

KINTOAK



ALTSASU



URDIAIN - FRANCIS



ZIORDIA



UHARTE ARAKIL Hiru eguneko kinto ospakizun izan zituzten Uharte Arakilgo zazpi kintoek. Inauteriekin bat egiten duenez, mozorrotuta ospatzen dituzte egunok eta udalak utzitako eraikin batean pasatzen dituzte parrandak. Ihote kalejiran ere parte hartu zuten.



ARBIZU Galgariyek izena hartu dute aurtengo kintoek beraien festetako atorrarako. Hemezortzi gazte kinto eskean aritu ziren igandean. Trikitilari eta pandero joleen doinuak, bonboarenak, etxaju eta petardozen zaratak gaztigatzen zuten nondik zebiltzan.

FLORÉS S.L.

Utubar industrialdea Arbizu
948 460 499
Nafarroako berezko txistorra.

Txoootx!

JUANLUZENA
SAGARDOTEGIA
MAIATZERA ARTE
txotx denboraldia zabalik

ODERITZ
948 604 571 | 680 652 183



LAKUNTZA Hamasei kinto lakuntzarrak eta beste horrenbeste kinto laguntzaileak euren festa ospatzen ari dira. Astelehenean eskean eta kantu-dantzan aritu ondoren Tolosara joan ziren gaupasa egitera. Asteartean festak segida izan zuen eta Altsasuko ihoteetara joan ziren.



ETXARRI ARANATZ Tolosatik bueltan, kinto eskean izan ziren goizean eta eguerdian Etxarri Aranazko 29 kintoak, txaranga lagun. Bazkaltzeko etenaren ondoren, inauteri kalejiran parte hartu zuten arratsaldean.

EGITARAUAK

HIRIBERRI ARAKIL

Ihote olinpikoak izanen dituzte Arakilgo herrian, aurtengo inauterietako gaia Olinpiar Jokoak baita.

OTSAILAK 25 Larunbata

12:30 Trikipoteo.
14:30 Herri bazkaria
18:00 Kalejira
19:00 Aittarko erre
19:30 Sokatira

ALTSASU

Herri ihoteen katarsiaren ondoren Piñata edo hiri ihoteen garaia heldu da. Kuadrillak, taldeka edo banaka altsasuarrak nahi duten pertsonaia, objektu, pelikula eta abarretan transformatu dira. Karrozaren bat ikusteko aukera izanen da ere.

OTSAILAK 25 Larunbata

10:00 Haize Berriak bandarekin kalejira.
18:00 Txorongo Txarangarekin kalejira.
20:00-22:00/24:00-03:00 Nueva

Etapa Orkestraren 50. urteurren kontzertu-dantzaldia.

22:00-01:00 Inauteri afaria, Intxostiapunta gazte gunean.

OLAZTI

Karroza desfilea eta lehiaketa da Olaztiko hiri ihoteetako ekitaldi nagusietarikoak: kuadrillek gaia aukeratzeko dute eta horren gainean karroza edo mozorroa sortzen dute.

OTSAILAK 25 Larunbata

12:00 Mozorro lehiaketarako izen-ematea, futbito pistan.
Ondoren, karrozen irteera.
17:00-19:30 Los Pasai txaranga.
19:00-23:00 DJ Raiztirekin dantzaldia.
20:00 Mozorroren lehiaketako sari banaketa.
22:00-08:00 Tekno gaua, gaztetxean.

ZIORDIA

Hiri inauteriak ospatuko dituzte. Kuadrillak mozorrotuta aterako dira kalera.

“Hazieraren bidelaguntza”

SOLASALDI ZIKLOA

kattuka
hur eskola

Hur txikiak dituzten
edo haurdun dauden familientzat

Otsailak 28
Martxoak 28
Apirilak 25

17:00-19:00

Kattuka hur eskolan (Arbizu)

Hur txikien garapena (kognitiboa, soziala, motorea)

Autonomia

Helduarekin harremana, arauak eta mugak osasuntsu hezteko

Hur txikiaren harremanak eta komunikazioa

... Eta nola bidelagundu dezakegun helduok
hau guztian...



ASTEKOA

AITZIBER CAMPION GANBOA

Gure gudariak

"Nik ez nuen aitatasun baja osorik hartu momentu hartan lan handia genuelako, sakrifizioa egin nuen ezinbestekoa nintzelako." Ez dira ez bat, ez bi esaldi honen jabe diren gizonak, asko dira. Horrela konpondu dute batzuek esparru profesionala eta pertsonalaren arteko gatazka.

Aztertu ditzagun bi espazio horietako bakoitzaren ezaugarriak. Alde batetik, lan erremuneratuaren espazioan kokatzen dira balio ekonomikoa, errekonozimendu soziala eta prestigio pertsonala, adibidez. Beste alde batetik, zaintzaren eremuan aurkituko ditugu inongo balio ekonomikorik ez duten lanak, eremu pribatuaren isolamenduan garatzen direnak eta sozialki inork aitortzen ez dituenak.

Beraz, norbaitek "nik ez nuen aitatasun baja osorik hartu" esaten duenean zera dio: "erabaki nuen nire zaintza ardurak ez betetzea eta errekonozimendu publikoa, ekonomikoa eta soziala ematen didan eremura itzultzea, inongo aitortza publiko, ekonomiko eta sozialik ez duen eremuan geratzea baino; nahiz eta horrek eragin nire bikotekidea denbora luzeagoz geratu behar izatea inongo errekonozimendurik gabeko zaintza eremuan".

Hara ze sakrifizioa. Domina batekin saritu beharko genukeen beste jarrera miresgarria, ez balitz erabat arduragabea dagozkizun zaintza ardurak ez betetzea.

Argi dago zaintzaren eremuan eskubideak eta betebeharrak legez arautzea ezinbestekoa izango dela, bestela, batzuek haien pribilegioak erabiltzen jarraituko dute, sakrifizio estoikoz mozorroturik, haien zaintza ardurak ez betetzeko. Eta beste batzuk guztion bizitzetara eusten jarraituko dute erabateko gutxiespenean.

HARA ZER DIEN

Jaibusa eta prebentzioa

SAKANAKO PREBENTZIO ZERBITZUAK

Otsaila da, eta hiru Jaibus eskaini ditugu dagoeneko. Argi dago gero eta eskaera gehiago daudela Jaibus gure inguruko jaietako larunbatetan jartzeko. Segurtasuna bilatu behar da jaietan eta, batez ere, itzuleretan, etxera ongi itzultzeko. Jaibusak behar hori betetzen du, eta, beraz, helburuak betetzen ditu. Jaibus programa jaiegunetan gerta daitezkeen istripuak murrizteko beharretik sortzen da, kontsumoak eta autoak oso binomio arriskutsua osatzen baitute.

Dena den, ezin dugu ahaztu istripu baten arriskuaz gain, familia gisa kontuan hartu beharreko beste arrisku batzuk ere badaudela gure seme-alabak irteten direnean. Horrela jakinarazten diegu 16 eta 18 urte bitarteko gazteentzat familia-karneta edo -baimena egitera datozen

familia guztiei (16 urtetik beherakoek ezin baitute Jaibus erabili).

Ezin dugu ahaztu familiak gurela gure adin txikikoen arduradunak eta, bide batez, ereduak.

Jakina da gure inguruan ikusten duguna normalizatu egiten dugula. Gure adin txikikoak festaren bat dagoen aldiro ordu txikiak arte egoten badira beti, ziur aski, beraiek baino zaharragoak diren pertsonengan oso gomendagarriak ez diren jarrerak-eta ikusiko dituztela, horrek dakarren normalizatzeko arriskuarekin. Hori guztia kontuan izatea garrantzitsua iruditzen zaigu.

Beste alde batetik, Prebentziotik eman dezakegun beste aholku bat da adin txikikoek argi eduki behar dutela euren zain gaudela edo iristen direnean abisatu behar dituztela. Horrela ikus dezakegu "nola"

iristen diren etxera. Baldin badakite gurasoen "kontrola edo kezka" dagoela, ziur aski kontuan izango dute eta horren arabera jokatu dute.

Beraiek jakin behar dute haietaz kezkatzen garela, eta beraien alde jokatzeko dugula. Adin txikikoengan deserosoa izan daiteke momentuan, baina epe luzean positiboa izanen da eta lotura sortuko du.

Azkenik esan behar dugu etxera iristen direnean ez dela eztabaidan sartzeko momenturik egokiena, eztabaida sartzeko egoera sortu bada, behintzat. Hobe da ongi deskantsatzea eta hurrengo egunean une lasaia batean elkarrizketa sortzea.

Gure seme-alaba nerabeek maitatzen ditugula sentitu behar dute eta, bide batez, euren burua zaintzen ikasi behar dute. Lagundu behar diegu, negoziatuz eta denok beteko ditugun akordioetara iritsiz.

GUTUNA

Boltio ETXERA!

JOXE ALDASORO JAUREGI ETA ONINTZA GOÑI IRAURGI

BOLTIO ETA LUIXEN LAGUNEN IZENEAN

Asier Karrera Arenzana, Boltio, bigarren gradura itzuli dute. Kolpe latza. Guretzat ere bai. Euskal Herriratzearekin hasitako notizia onen bolada bukatu da. Oraingoan, Ez gara epaileak, juristak, katedratikoak: fundizioko langileak, pentsionistak, fisioak, erizainak, bankuak

langileak, nekazariak, ingeniariak, kooperatibistak, kirol monitoriak, irakasleak, automobilgintzako langileak, jantokikoak, gerenteak, tabernariak, baizik. Badakigu, hala ere, aspalditik, sudur puntan jartzen zaiena, edo jartzen dietena egiten dutela espainolek, izan politikari, polizia edo epaile. Oraingoan, togadun batek erabaki du Boltio bigarren gradura itzuli behar duela.

Etxean behar dugu Boltio. Eta Luix. Hogeita bi urte

daramatzate espetxean. Atxilotetatik saiatu gara behar zituztenak asetzen. Oraingoan ere bai.

Hamaika eztabaida izan ditugu kuadrillan espetxeratzeen arrazoiaz, bertatik ateratzeko egin beharrekoak. Norbera bere arrazoi zatiarekin oheratu gara bien ala bien urtebetetzeak ospatzeko egiten ditugun afarien ondoren; manifestazio, mendi irteera, kontzentrazio, bazkari, poteo, bizikleta buelta, festa, hileta,

turno eta igande arratsalde aspergarriak bukatutakoan ere bai.

Iritziak iritzi, haien erabakiak errespetatu eta babestu ditugu. Zer bestela? Oraingoan ere gure eskutan dagoena egingo dugu. Ez egitea ulertezina litzateke. Barkaezina ere bai, agian. Ziurrenik.

Gradu erregresiorik EZ! oihukatuko dugu ostiralean. Etxera itzuli daitezela ere bai. Popi eta Unai ere bai. Guztiak.

Ez ditugu konstituzioak, zigor kodeak, araudiak irakurri.

Badakigu, ordea, euriak busti egiten duela. Aritasun berarekin dakigu gauza bera egiteagatik batzuk saritu eta beste batzuk zigortzen dituen justizia txarra dela, gaiztoa, ankerra. Injustizia, alegia. Batzuk espetxea zapaldu gabe edo sarrera zapaltzearekin bakarrik ordaindu; beste batzuk hamarkadak barruan eman behar izatea. Barrionuevo, Vera, Elgorriaga, Galindo, San Cristobal, Alvarez, Amedo, Dorado, Bayo, Vaquero...

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzaila:

Maite Iparragirre Astiz

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada:

3.200

LAGUNTZAILEAK

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK



Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketazaila:
Irene Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



SAKANAKO IKASTOLAK

Gu ikastola, ...

Mende erdia daramagu gure bai-larako sakandarrei elkarlanean eraikitako hezkuntza proiektu aitzindaria eskaintzen. Jendar-teak momentuan dituen beharrei aurre egiteko hezkuntza integrala eskainiz eta etorkizuneko erronkei aurreratuz erantzun egokiak eta berriak bilatuz. 60ko hamarkadan Sakanako Ikastolek hezkuntza euskaldunaren bidea hasi genuenetik, argi izan dugu: GU ikastola:

• ...**herritik sortuta eta herriarentzat bideratutako proiektua delako**: Euskal Herria osoan euskal Hezkuntza sistema propioa sortzeko

elkarlanean gabiltza 113 ikastola, 46.000 familia, 3.700 langile. Etorkizunera begira jarriak, etorkizuneko erronkak aurrekusi eta jendarteak izango dituen beharrei aurre egiteko ikasleak prestatuz. Auzolanean, ikasleak, gurasoak eta langileak elkarrekin. Ikastola denontzako proiektua delako, inklusiboa eta solidarioa, izaera publiko-herritarra duena, feminista eta laikoa.

• ...**ikaslea hezkuntza prozesuaren erdigunean dagoelako**: Ikaslea bere garapenerako edozein puntutan dagoelarik, hezkuntza prozesuaren protagonista aktibo bilakatzen

da, irakasleagoa bidelagun izanda, urratsak aurrera emanez. Hone-la, irteera profileen identifikatutako eta adostutako gaitasunak eskuratzen joango da. Bere garapenaren bidean ebaluazio hezigarri eta jarraien bidez joango da bidea eraikitzen.

• ...**hezkuntza eredu propioa dugu-lako**: Ikasle euskaldun eleaniztun konprometitua hezi nahi ditugulako, Euskal curriculumean oinarritutako material propioak ditugu ikastoletan. Euskal Herri-tik mundura. Euskara eta euskal kultura ardatz izanda, ikasleen ekosistema osoan horrela izatea bultzatzen dugulako: gela barruan zein kanpoan, ikastolan zein herrietan beste herri eragileekin elkarlanean ekosistema horiek sustatuz eta eraikiz.

• ...**kompetentzietan oinarritutako metodologian eskarmentua dugulako**: Hamarkada bat daramagu gure materialgintza propiotik kompetentziak garatzen. Ikasleen hezkuntza garapena haien aurreragutzetatik abiatzen dugu, dakitenetik elkarrekintzaren bidez ezagutza berriak eraikitzen joaten gara. Ikaslearen inguruan familiarekin batera konfiantzaz-

ko ingurune goxoa sustatzen dugu pedagogia aktiboa era optimoan jardun ahal izateko. Egerra errealei aurre egiteko proposak diren erronkak mahaigaineratzen dira ikasketa prozesuan zehar, ikasleak eguneroko testuinguruan aurki ditzakeenei aurre eginez eta baliogarriak izan dakizkiokkeen tresna eta ezagutzak bere eskura jarriera autonomoan aritzeko.

• ...**etengabeko formazioan dihardugulako**: Ikaslea erdigunean kokatzeak duen garrantzia berebizikoa da. Hori honela, bidelagun diren irakasleen egonkortasuna bermatzea kalitatezko hezkuntza eskaintzaren lehengo urratsetako bat da. Lan talde inplikatuak, egonkorra eta gertukoa daukagu batera norabide



berean aritzen dena. Ikastolen sarean formazio sistematikoak izaten ditugu ikastolen arteko lankidetzara eta elkarlana sustatuz: irakasle, arduradun pedagogiko, orientatzaile, zuzendari eta administrariaren arteko formazioa era sistematikoan inplementaturik dago. Bestalde ere, ikastola mailan, Sakanako gure ikasle profileen erreparaturik, beharrezko formazio propioak ere bideratzen ditugu, hala nola, elkarrekintzan oinarritutako pedagogian lanean aritzeko.

• ...**lantalde bat osatzen dugulako**: Ikaslearen ongizatea helburu, hezkuntza eta garapen prozesuan hiru ardatzen arteko elkarlana ezinbestekoa da: ikaslearena, irakaslearena eta familiaena.

Horregatik, GU IKASTOLA ETA ZU?



HH ETA LH AURREMATRIKULAZIOA 2023-2024

Martxoaren 6tik 10era

IÑIGO ARITZA IKASTOLA

 ikastola@inigoarizta.eus
 San Pedro, 16. Altsasu
 948 56 29 51 / 606 03 09 66

ANDRA MARI IKASTOLA

 etxarri@ikastola.eus
 Utzubartxiki, 3. Etxarri Aranatz
 Kale nagusia, z/g. Arbizu
 948 46 02 86

TXIOKA HAUR IKASTOLA

 txioka.haur.ikastola@inigoarizta.eus
 Santokristobarren, z/g. Altsasu
 948 37 30 23 / 689 45 41 68



HITZORDU PERTSONALIZATUAK HARTZEKO AUKERA



ALTSASUKO KORAZONISTAK

Korazonistak tipi tapa

1. TIPI – EKOLOGIA

Ingurumenaren alde lanean ekimen berriekin

2. TAPA – KONFIDANTZA

Gure pedagogiaren oinarrian

3. TIPI – EUSKARA

Bihotzean eta ahoan

4. TAPA –ALTSASU

Geure herrian eta geure herri-rako

5. TIPI – BERRIKUNTZA

Egunerokoan eta etorkizunera begira

6. TAPA – PROIEKTUA

Hezkuntza berritzen

7. TIPI – LANA

Egunero, hilabetero, ikasturtero

8. TAPA – EMAITZAK

Hobetuz beti

9. TIPI – PROZESUA

Eraldaketa posible delako

10. TAPA – ANIZTASUNA

Aberasten gaituelako

11. TIPI – FAMILIA

Gertu-gertutik hezten begira

12. TAPA – ADISKIDETASUNA

Ikasleengan sortu eta sustatuz



EKOLOGIA
KONFIDANTZA
EUSKARA
ALTSASU
BERRIKUNTZA
PROIEKTUA
LANA
EMAITZAK
PROZESUA
ANIZTASUNA
 familia
 Adiskidetasuna

Eskola aurrez aurre
ezagutzeko hitzordua
eskatu
948562035

HH eta LH
aurrematrikulazioaren
epea 23/24
Martxoaren 6tik 10 era arte

 **Altsasuko Korazonistak**
Corazonistas Alsasua



SAKANAKO HERRI ESKOLAK

Km 0 eskolak gara

Gure herrietako kaleetan barrena dabilen herriaren eskola gara.

Irurtzundik Ziordirainoko herrietako eskola publiko guztien sarea da Sakanako Herri Eskolena. Haurtzaroa herriko kaleetan barrena bizi duen eskolak gara. Lurra oinez zapaltzen duten eskolak. Herriko kale eta parkeetan barrena bizi diren haurren eskolak gara. Bizilagunak agurtu, herriko itheen izenak ikasi, herriko dendatik enkargua jaso, erreka zubi pasatu, kale kantoiko Argi txakurra xaxatu, bideko iturrian eskuak busti, lagunaren etxean atea jo eta herriko eskolara bidea oinez osatzen duten ikasleen eskolak. Gure eskolako leihotatik gure herriko mendiak ikusten dira.

Euskara da gure ardatza, gure abiapuntua eta gure helmuga. Euskara da gure lurra. Euskaratik eta euskaraz diardugu etengabe eta gogoz lanean! Gure herri eta txokoetako hizkera, ohitura, kultura eta herri bakoitzaren ezaugarri propioak dira gure joko zelaia. Sakana eta bertako herri bakoitzaren izaera propio eta aberatsean barrena, herriz-herri dagozkion ohitura eta modu desberdinen aberastasunean barrena zabaltzen dira gure eskolak. Etenik gabeko aberastasun batean zabaltzen dira gure herriak eta gure eskolak.

Herrien biziraupenean laguntza ezinbestekoak gara. Gure ikas-

leentzat herria beraien ikasketa prozesuaren parte da. Aurtengo Sakana sarietan publikoaren saria jaso dugu. Eskerrik asko Sakana! Lanean gogoz jarraituko dugu. Sarian jaso ditugun saskiko produktuak bezala, gure ikasleak bakarrak dira, bertakoak eta mimoz haziak.

Familiak eta etxeko haurrak dira gure eskolen argia. Buru bihotzez lan egiten dugu beraien batera. Komunitatearen ongizatearekin konprometuz osoa daukagu. Zonaldeko zerbitzu desberdinekin sarean lana egiten dugu. Familiak eskola eta ikaskuntza prozesu osoaren zati erabat ezinbestekoa dira, guztion artean osatzen dugu eskola.

Ikasle guztien gaitasunak edo kompetentziak garatzen ditugu, bakoitzaren erritmoa errespetatuz.

Tutoretza planei esker ikastaldeari taldean bizitzen ikasteko jokoak eskaintzen dizkiegu, elkarbizitzarako tailerrak eta jarduerak garatuz, Heziketa Emozionaleko proiektuetan parte hartzen dugu, Hezikidetzaren (genero berdintasuna= Skolae programa) oinarri bezala hartuta. Hauek, bizitzarako ezinbesteko trebetasunak dira.

Ikasleen eskubideen berdintasuna zainduz, beraien indar-

guneetan begirada jarrita, emaitza akademikoetan jartzen dugu indarra. Ikasketa kooperatiboa, Tertuliak, Matematika manipulatioak, Talde elkarreragileak, inklusioa bideratzeko dinamikak... Kanpo frogan emaitzetatik jasotako datuetan oinarrituta, hobekuntza planak diseinatu eta horri lotuta irakasleen etengabeko formakuntza egiten da gure eskoletan.

Kalitatezko kudeaketa sistemak dauzkagu garatuta Sakanako herri eskolen sarea osatzen dugun 9 eskoletan. Gure lanak sistema-

tizatu eta zehaztu eta neurtzeko eta publikoa, doakoa eta kalitatezkoa den hezkuntza sortzeko.



Ikastetxe gehienetan, jantoki, garraio, goizeko gela eta eskolaz kanpoko zerbitzuak ditugu, gizaratearen beharrei eta familia eta lana uztartzeko neurrietan lagunduz.

Bihotzez maite ditugu gure ikasleak eta beraien familiak. Eta eskola bakoitza eta bere herria, batak ezinbestekoa baitu bestea.

Hezkuntza maitasunik gabe ezin da ulertu.

Martxoaren 6tik 10era zabalduko da gure eskoletan izena emateko epea. Etorri eta ezagutu!

SAN DONATO
HERRI ESKOLA

BIZITZARAKO IKASI!

ATE IREKIAK:
MARTXOAK 2, 12:30 / MARTXOAK 3, 17:00
HITZORDU PERTSONALIZATUAK

cpetxarr@educacion.navarra.es Tel. 948567003





SAKANAKO

Herri-Eskolak

Km 0 eskolak

Izena eman

Martxoaren 6tik 10era





Adinduen egoitzako udal patronatuak Ignacio Aranburu Beldarrainen herentzia jaso du, 193.472,18 euro eta bi etxebizitza.

Udal aurrekontua %10,7 handitu da

Geroa Bairen aldeko botoekin eta EH Bilduren abstentzioarekin Altsasuko Udalak aurrekontuak onartu ditu. 2022an baino 913.165,83 euro gehiago dira. Udalak aitortu duenez, "asko" hobetu da foru gobernuaren bidez lortzen den finantziazioa

ALTSASU

Aita Barandiaran adinduen egoitzako eta Udal Musika eta Dantza Eskolako patronatuak kontuan izanik, Altsasuko Udalak 9.415.488,7 euroko aurrekontua du aurten; azken hamar urteetako handiena. Eta nahiz eta aurrekontuan ez jaso, udal kirol azpiegituren kudeaketaz arduratzen den Atabo Altsasu SL enpresaren galera eta irabazien aurreikuspena ere egin du. Javier Ollo Martinez alkateak azaldu duenez, "Ukrainako gerraren ondorioz, energia kostuak handitu egin dira eta, horrek, aurrekontuak markatu ditu".

Altsasuko adinduen egoitzak 1.382.504,48 euroko aurrekontua du aurten. Haietatik udalak 114.136,54 euro jarriko ditu, joan den urtean baino %58,92 gutxiago. Pertsonen Autonomia eta Garapenerako Nafarroako

Agentziak kontzertazio sistema berria ezarri du eta, horregatik, jaitsi da udalak egin beharreko ekarpena. Bestetik, Udal Musika eta Dantza Eskolak 399.983,33 euroko aurrekontua du, haietatik 267.599,34 udalak jarriak. Udalak Burunda mendebaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateari 398.841,61 euroko ekarpena egingen dio eta Sakanako Mankomunitateari, berriz, 755.400,48 eurokoa.

Aurrekontua bozkatzeko garaian, EH Bilduk abstentziora jo zuen. Koalizioko bozeramaile Javier Paz Miñok azaldu zuenez, "aurrekontu kontinuista da. Epe motzeko aurrekontua da, unekoari begiratzen dio eta ez dago etorkizunera begira beharrezko diren proiektuen aurreikuspenik. Esaterako, energia trantsizioa edota eraginkortasuna". Pazez gaineratu zuenez, "aurrekontuan

ez dute zergatik jasoak egon inbertsio guztiak, baina proiektuak gauzatzeko oinarriak jarri daitezke, inbertsio horiek egiteko. Aurreikuspena izateko, lasai ibiltzeko eta altsasuarrek parte hartzeko aukera izan de-

zaten. Eta ez ibiltzea aurrekontu aldaketekin korrika eta presaka, dirulaguntza deialdi bat dagoelako".

Javier Ollo Martinez alkateak erantzun zuenez, "diruzaintzako gerakinarekin, aurrekontu aldaketen bidez, udalak gauza asko egin ditzake". Joan zen urtean 40 bat aldaketa egin zizutela azaldu zuen. Alkateak gatzigatu zuenez, aurreko urteetan ez bezala, aurtengo aurrekontuetan "gasaren prezioen igoera dela-eta Atabo enpresa publikoari egin beharreko ekarpena jasoa dago. Eta Sakanako Mankomunitateari ordaindu beharrekoa, joan den urtean igo zena. Hainbat faktore kontuan izanda, aurrekontua koadratzea edo egunerokoak ez diren kontuak sartzea, ez da erraza. Eta, eskerrak, gobernuaren ekarpenari, bestela arazoak izango genituzke".

Emendakinak

Aurrekontuari bi taldeek bina emendakin aurkeztu zizkieten eta laurak onartu ziren. EH Bilduk bi egin zituen. Batetik, Haize Berriak bandarekin dagoen hitzarmeneko diru kopurua eguneratzea eta, bestetik, plantilla organikoan hutsik dagoen basozain lanpostua betetzea proposatu zuen. Izan ere, EH Bilduren ustez, "dugun basoa ikusita, pertsona bakarrarendako gehiegizko lana da".

Geroa Baik, bestetik, aurrekontu zirriborroa egin ondoren, Nafarroako Gobernuak haur eskoletako langileendako soldata osagarrien berri eman zuen eta, horregatik, 22.594,3 eurotan handitu zuen aurrekontua. Horri oniritzia eman zion udalak. Azkenik, udaleko lanpostuen ebaluazio globala egitea eraba-

ki zuen udalak. Ollok azaldu zuenez, "soldata osagarriak haur eskolako langileei bakarrik ez ezartzeko, eta beste langile batzuk halakoak eskatu dituztenez, banaka negoziatu beharrean, ebaluazioa egingen dugu, jakiteko lanpostu bakoitzari zer dago-kion". 9.500 euro bideratuko ditu horretarako udalak.

Ollok jakinarazi zuenez, plantilla organikotik arkitektoa eta kultura laguntzailea kendu dira. "Biek sekula ez dute aurrekonturik izan eta ez dira bete". Basozain lanpostuarekin batera plantillako beste berritasuna da Txiribulo haur eskolako langileak udalaren lan hitzarmenaren barruan sartu direla; hezitzaileek C maila eta garbitzaileek E maila dute ikasturte hasieratik. Bestalde, udalak 8 pertsona kontratatuko ditu sei hilabeterako.

Inbertsioak

- **253.590 euro** Futbol zelaiko belardia eta argiteria berritzea.
- **146.410** Tenis pistaren eraikuntza.
- **130.627** Eskolako argindar instalazioaren erreformaren bigarren fasea.
- **95.436** Otadiako ur beltzak eta euri uren sareak bereiztea.
- **30.000** Herriko sarbideak eta San Joango oinezkoen pasarela berritzea.
- **20.000** Kulturagunearen impermeabilizazioa.
- **20.000** Hilerrian hobekuntzak.
- **3.000** Ekintzaileak.



Alba Mozun Martin, kuxkurtuta ezkerretik lehena, Lanbide Heziketako ikasleekin batera. UTZITAKOIA

Afanek ibarrean errotu nahi du

Dementia duten pertsonen senideei informazioa, prestakuntza eta emozio babesa eskaintzen dizkie elkarteak. Laguntza taldea hilean behin biltzen da. Banakako arreta nahi denerako eskatu daiteke. Prestakuntza saioa antolatu du astelehenerako

DUELA 25 URTE...



Elementu berriak ihoterako

Gazte ubertearrek herriko ihoteari buruzko informazio bilketa egin ondoren, hura berreskuratzea erabaki zuten 1996an, eta kinto ospakizunekin bat egin zuten. Aurpegia estalita garai bateko gremioen parodiak egin zituzten, trapuzko panpin bat batetik bestera ibili zuten, iluntzean su emateko hartz bat ere bai ... Aurreko urteetako elementuei, berritasun gisa, gazte antolatzaileek inkisizioaren antzezipena eta txerri hiltzearena gehitu zizkioten.

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Nafarroako Alzheimer eta beste demenzia batzuk dituzten gaixoen senideen elkarte da Afan. Bere zerbitzu kartan honakoak ditu: harrera eta informazioa, psikologia arreta, aholkularitza (banakakoa, familiendako, legeen ingurukoa...) laguntza taldeak, prestakuntza ikastaroak, borondatezko lana, oinarritzako erizaintza arreta, sentsibilizazioa eta informazioa eta laguntza tekniko zerbitzua.

Alba Mozun Martin Afaneko osasun psikologoa eta Altsasu eskualdeko arduraduna da. Berak azaldu duenez, Afanek Sakanako familiak artatzen hainbat urte darama, "baina joan den urtetik zerbitzuak zabaldu nahi ditugu ibarrean; Iruñean orain ditugun zerbitzu guztiak Altsasura ekarri nahi ditugu. Gehiagotan etorri nahi dugu, presentean egon

nahi dugu". Afanek bere jardura hiriburutik atera ahal izateko pertsona bat kontratatu du. Beste baliabide eta erakundeekin elkarlanean aritzeak errazten du haiek edozein egunetan etorri ahal izatea; "gela bat uztea nahikoa da". Mozunek gaztigatu duenez, "guri hots egin eta dauzkaten premiei egokituko gara".

Elkartearen baliabideen erabilerearen onurak dira: "gaitzaren inguruko informazioa jasotzea. Diagnostikoa jaso ondoren jakiten ez diren makina bat kontu daude. Pitteka ikasten joaten laguntzen dugu, edo sortzen diren zalantzak argitzen". Mozunek azaldu duenez, "gaixoaren familiaren bizitza guztiz aldatzen da eta elkarteak gaixotasunak irauten duen bitartean, akonpainamendua egiten du: diagnosiaren garaian, hura ulertzeko; gaitza ezagutzen joan; emozio sostengua; lege aholkularitza; gaitza aurrera egitean agurtzen hasia... Badaude zaintza lanak egiten ari ez diren pertsonak, oraindik ere, elkartearen baliabideak erabiltzen dituztenak".

Afanek osasun etxeetan utzi ditu bere berri ematen duten euskarriak. Bestalde, Mozun Burunda mendebaldeko osasun eremuko zuzendaritzarekin, Sakanako Mankomunitateko presidentea David Oroz Alonsorekin eta, Sakanako Garapen Agentziako ordezkariekin bildu zen ilbeltzaren 17an.

Laguntza taldea

Mozunek argitu duenez, "edozein demenziak gaixotutako pertsona baten senideak parte har dezake laguntza taldean, gaixotasunaren fasea edozein dela ere". Osasun psikologoak gaztigatu duenez, "aurretik Afan elkartearekin harremanetan jarri behar da jakiteko haiendako zein den baliabide egokiena. Familia, haren beharrak, gaixoaren diagnostika ezagutzeko hitzordua jarri eta elkarrizketatu egingen dugu. Haien egoera baloratuko dugu, zer baliabide nahi duten edo behar duten jakiteko. Ez da gauza bera demenzia bat edo bestea izatea. Ez da gauza bera gaitza aurreratu edo hasieran egotea". Afanek baliabideak "familia bakoitzaren profilerak egokitzen" ditu.

Hilabeteko hirugarren astelehenean elkartzen da sostengu taldea Josefina Arregi klinika psikogeriatrikoan, garil eta agorrilean izan ezik. "Kasu bakoitza

Prestakuntza saioa

Alzheimerri buruzkoa, Altsasuko osasun etxean izanen da astelehenean, 16:30ean. "Gaitza ezagutzeko eta gaixoak gobernatzeko beharrezko diren oinarritzko jarraibideak ikasteko aukera izanen da". Izena emateko: 948 275 252 edo 693 402 175 zenbakietara hots egin edo afan@alzheimernavarra.com helbidera idatzi.

desberdina da. Baina zure antzeko egoera bizi duen pertsona bat da zu ulertua sentiaraziko dizuna. Pertsona hori da horretarako egokiena. Askotan taldeetan ikusten duguna da: 'hori ere pasatzen zaizu zuri? Ez naiz hain gaizki sentitzen!' Lasaitze txiki bat dago, akonpainamendua", azaldu du Mozunek. Gaineratu duenez, herrietako sostengu taldeen beste onura bat da "kalean topatzea. Horrek ere lagun dezake".

Jokin Zelaia Oiarbidek 11 urte egin zituen ama zaintzen, eta aurtan bi urte egingen du hilzela. "Josefina Arregi klinikian diagnostika eman ziguten. Alzheimerak jota zegoen ama, eta berarekin nuen harremana kudeatzeko nuen baliabide bakarra Afan elkarte izan da. Duela 7 urte hasi nintzen sostengu taldeetara joaten. Horrek lagundu zidan amarekin nuen harremana kudeatzen. Baita ni ongi egoten ikasteko, emozioak kudeatzeko. Gainera, gaitza eta bere faseak ezagutzeko balio izan dit taldeak".

Zelaiak aitortu duenez, berarendako sostengu taldea izan da "laguntza, babesa, informazioa, ikasketa". Gaineratu duenez, "sostengu taldea espazio pribatu bat da, zeure burua azaltzeko eta hustu ahal izateko. Husteko eta sostengurako terapia talde bat da". Beste aspektu bat gaineratu nahi izan du Zelaiak: elkarteak ematen duen lege aholkularitza: "unerren batean notarioarengana joan behar badut, zer egin behar dut? Edo noiz. Halako egoerak argitzeko informazioa ematen du Afanek".

Euskara lagunartean nola gozatu ikasi dute

Ibarreko lau ikastetxetako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 215 ikaslek euskarazko lagunarteko hizkera lantzeko saio batean parte hartu dute. Erregistro kolokiala lantzeko saio dinamikoak izan dira

SAKANA

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak Lagunarteko hizkerarekin jolasean tailerra eskaini die ibarreko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeei. Ikasturtean lau ikastetxe egin dute bere eskaintza eta saioetan Irurtzungo Atakondoa ikastetxeko DBH 2. mailako ikasleek, Andra Mari ikastolako DBHko 4. mailakoek, Altsasu BHI institutuko DBH 2. mailakoek eta Iñigo Aritza ikastolako DBHko 3. mailakoek parte hartu dute.

Saioak abendua eta otsaila artean izan dira, eta haiek dinamizatzeaz Ttakun kultur elkarteko hezitzaileak arduratu dira. Ikastetxe bakoitzeko ikasleekin bina ordu egon dira. Izaskun Errazkin Beltza euskara teknikariak azaldu duenez, "egitismo honen helburua da gazteek euskarazko lagunarteko hizkera lantzea jolasen bidez, eta hizkuntzarekin jolasteko aukera izatea, horrela, egoera informaletan euska-



Atakondoko ikasleek majo pasa zuten saioan.

razko lagunarteko hizkera erabil dezaten animatzeko". Gaineratu duenez, "saioek balio izan dute erakusteko euskararekin jolastu eta ondo pasa daitekeela. Bestetik, lortu nahi izan da gazteak euskarazko erregistro kolokiala

erabiliz, gustura sentitzea". Horretarako, besteak beste, adarra jotzea, hitz gordinak, ligatzea eta maitasuna adierazten duten esamoldeak landu zituzten. Errazkinek azaldu duenez, "ikasleek balorazio ona egin zuten".

Salinasen biografia liburu batean jaso

Errepublikara garaiko agintariei buruzko foru gobernuaren liburuan dago. Haren irudia Nafarroako Jauregian dago

ALTSASU

Bigarren errepublika aldarrikatu ondoren, Probintziako Batzorde Kudeatzaile bat ezarri zen erregimen politiko berrira igarotzeko, lehendakariordea zen haren buru. Nafarroako Gobernuak "beharrezko justizia eta memoria" ekintza eginez, II. Errepublikako hiru lehendakariordeen irudiak Nafarroako Jauregiko agintarien erretratuen galerian jarri zituen 2021eko abenduaren 21ean. Constantino Salinas Jaca altsasuarra, Serafin Yanguas Lagarda eta Juan Pedro

Arraiza Baleztena dira hiru lehendakariorde horiek.

Foru gobernuak *Nafarroako Foru Aldundiaren lehendakariordeak II. Errepublikan. Amaya Gúrpide Rubio erretratuak* liburu argitaratu du. Hiru zati ditu. Lehen zatian, liburuaren historia testuingurua errepasatu du Angel Pascualek. Bigarrenean, berriz, Salinas, Yanguas eta Arraizaren biografiak daude, Angel Garcia-Sanzek, Mikel Olaskoagak eta Eduardo Martinezek idatziak. Eta, hirugarren zatian, Amaia Gurpide erretratuen egi-

leak jarraitutako sormen prozesua jaso da, baita Javier Monrealek idatzitako artistarekiko hurbilketa bat ere. Liburuak 20 eurotan eskuratu daiteke.

Salinas Nafarroako Diputazio lehendakariorde izateaz aparte, herriko medikua, alkateordea eta 1936ko estatu kolpearen ondoren Eusko Jaurlaritzako osasun saileko arduraduna izan zen. Gerra bukatutakoan Argentina erbesteratu zen eta han hil zen, 1966an. Hura gogoratzeko osasun etxeak bere izena zuen, eta idatzia zegoen sarrerako ate gaineko kartel luze eta gorri batean. Ate nagusia ixteko pertsiarri jarri zuten, baita kartela kendu eta bazter batean botata utzi ere. Altsasuko EH Bilduk salatu duenez, "historia memoriari emandako zaplaztekoa da" gertatutakoa.

Iturmendik oposizio lehiaketa bidez bete du almirante lanpostua

Iturmendiko Udalak zerbitzu anitzetako enpleguaren lanpostua oposizio-lehiaketa bidez eta funtzionarioen araubidean betetzeko deialdia egin zuen. Hura egin eta gero, epaimahai kalifikatzaileak prozesua ebaluatu ondoren, udalak Javier Almirantearena Legaz zerbitzu anitzetako enplegu izendatu du. Santi Agirre Galartzaren lekua hartu du Almirantearenak, Agirre 2021ko abenduan jubilatua baitzen. Bitartean lanpostua behin-behinean beteta egon da. Iturmendiko Udalak beste bi langile ditu: idazkaria eta administrari ofiziala. Azken biek lanaldiaren zati bat Bakaiku Udalarendako lan egiten dute.

Olatzagutiko hainbat kaleetako zola berrituta

Olatzagutiko Udalak 134.000 euroko inbertsioa egin du herriko hainbat kaleetako zorua berritu eta behar bezala uzteko. Lan horien ondorioz, Kale Nagusiko zati handi batek, Vicente Argomaniz plazak, San Francisco kalea osoak, Sancti Espiritu eta Larratxota kaleetako zati txiki batek eta Insumisio plazako beste zati txiki batek asfaltozko zoru berria dute. Lan horiek ilbeltzean egin ziren eta bi aste iraun zuten. Horien ondorioz, zorutik zuloak eta irregulartasunak desagertu dira. Gainera, zoru berriaren gainean ohiko seinaleak marraztu dituzte pinturaz, baita non ezin den aparkatu ere. Lan horiekin aste honetan segitu dute.

2023-2024

ESKOLATZEA | ESCOLARIZACIÓN | УЧИЛИЩНО ОБУЧЕНИЕ | ESCOLARIZAÇÃO
التسجيل في المدارس لعام | ANUL ȘCOLAR | SCOLARISATION | SCHOOLING

Eleaniztasunak onurak ditu
El plurilingüismo tiene ventajas
Многоезиचितо има предимства
O plurilinguismo tem vantagens
التعدد اللغوي له ميزات
Multilingvismul îți oferă doar avantaj
Le plurilinguisme a des avantages
Multilingualism has its advantages

Mank.
s a k a n a



Joan zen urteko Altsasu 36. Krosa Nafarroako Kros Luzeko Txapelketa izan zen, eta aurtengoa Nafarroako Kros Laburra izango da.

37. Altsasuko Krosaren txanda

ATLETISMOA Larunbatean Altsasuko 37. Krosa jokatu da Dantzalekun. Harekin batera Nafarroako Kros Laburra jokatu da, eta kategoriatxikien NKJ-en Banakako Nafarroako Txapelketak. Guztira 2.100 korrikalari baino inguru bilduko dira

Maidar Betelu Ganboa ALTSASU Larunbatean, otsailak 25, korrikalariz beteko dira Dantzaleku eta ingurune zoragarriak. Dantzalekun lehen krosa antolatzen zeneko 51. urteurrena ospatzen den honetan, 37. Altsasuko Krosa egongo da jokoan. Lasterketa herrikoiarekin batera, Nafarroako Kros Laburreko Txapelketa jokatu da eta kategoriatxikien lasterketak Nafarroako Kirol Jokoen (NKJ) Banakako Nafarroako Txapelketak izango dira. Guztira 2.100 korrikalaritik gora espero dira.

Larunbata, akaso, ez da Altsasun lasterketarik antolatzen datarik onena, "baina ez zegoen beste aukerarik. Nafarroako Atletismo Federaziotik argi esan ziguten, otsailak 25 edo 26, ez zegoela beste aukerarik Nafarroako Kros Laburreko Txapelketa antolatzeko. Eta larunbatean

hiri inauteriak direla kontuan hartuta, okerragoa iruditzen zitzaigun igandea. Beraz, larunbat goizean korrika egingo dute askok, eta ondoren mozorroa jantzi eta ihoteetan murgilduko dira" azaldu du Dantzaleku Sakana Atletismo Klubeko Aitor Mendoza monitorea.

18 urtez azpikoak, goiztiarrenak Kros lasterketak goizter hasiko dira, 10:00etan. 18 urtez azpikoen, 16 urtez azpikoen eta 14 urtez azpikoen lasterketak jokatu dira lehenik eta behin, NKJ Banakako Nafarroako Txapelketak

NAFARROAKO KROS ESPEZIALISTA ONENAK BILDUKO DIRA LARUNBATEAN DANTZALEKUN

izango direnak. Ondoren, 11:40an, 37. Altsasuko Kros herrikoia eta Nafarroako Kros Laburreko Txapelketa abiatuko dira Dantzaleku pistetatik, bi probak aldi berean. "Guri ere arraroa egin zitzaigun federatutakoak eta atleta herrikoiak aldi berean abiatzea, Nafarroako Txapelketa Laburra jokoan dagoenean, baina hala erabaki du federazioak" aitortu du Mendozak. Krosespezialista nafar onenak lehiatuko dira eta haiekin batera, atleta herrikoiak. Kros Laburreko Txapelketa denez, 4.550 metro osatuko dituzte. Bukatzeke, 12 eta 10 urtez azpikoen txanda izango da.

Bi zirkuitu, aldaketekin Ibilbidean aldaketak egin dituzte. "Haritz amerikarrak moztu eta atera zituztenean zirkuitua barratuta geratu zen, eta eremu

horretatik laburtu dugu zirkuitua. Bi zirkuitu prestatu ditugu: laburra, Usolarraingoa, kategoriatxikiko probak hartuko dituen, eta luzea, 1.450 metrokoa, Dantzalekuko goiko futbol zelai zaharretik eta Dameroan sartzen dena, Altsasuko Kroserako".

2.100 korrikalarien bueltan

Nafarroako Kros Laburreko Txapelketan 95 atleta daude izena emanda, izen ezagunak. Emakumezkoetan Maria Ordoñez, Izaskun Beunza, Sagrario Izquierdo, Leire Estarriaga... eta gizonezkoetan Ayrton Azcue, Alvaro Alduan, Iker Alonso, Israel Arbizu, Eukeni Goikoetxea, Sergio Garcia de Eulate, Ivan Sobredo... NKJ-etako Banakako Kros Txapelketan, berriz, 1.960 korrikalari daude izena emanda, "Nafarroako txoko guztietatik etorrita. Zalantza gehiago dugu Altsasuko Kros herrikoiarekin, baina hala ere, jendea animatuko dela uste dugu. Oraindik aukera badute". Beraz, 2.100 korrikalaritik gora bilduko dira Dantzalekun.

37. Altsasuko Kros herrikoian aurretiatzko izena ematea itxita dago, baina probaren egunean bertan, larunbatean izena eman ahal izango da Dantzalekun, lasterketa baino lehen. Prezioa 5 eurokoa da, Dantzaleku Sakana klubeko bazkideek izan ezik. Hauek dohain izango dute parte hartzea. NKJ-etako probetarako eta Nafarroako Txapelketa Laburreko, aldiz, izena ematea itxita dago. Larunbaterako hotza aurreikusten da, baina bezperako egunekin alderatuta, hobe-kuntza iragartzen dute.

Dantzalekun 70 neska-mutiko

Aurten 70 haur eta gaztetxo ari dira Dantzaleku Sakana Atletismo Eskolan trebatzen, kopuru handia. "Oso pozik gaude. Eskola ederra dugu aurten. Horietatik 42 neska-mutikok eman dute izena larunbatean Altsasun NKJ-etako Banakako Kros Txapelketan aritzeko, eta zenbaki oso ona da hori" dio Aitor Mendozak. Fermin Azkargorta da Dantzaleku Atletismo Eskolako koordinatzailea eta monitorea lanetan aritzen da,

"DANTZALEKUTIK 42 GAZTE LEHIATUKO DIRA ALTSASUN. OSO POZIK GAUDE" AITOR MENDOZA

Ordutegia

Altsasuko Dantzaleku pistetatik abiatuta.

Kategorien ordutegia

- **10:00** 18 urtez azpikoak. 6.000 m.
- **10:30** 16 urtez azpikoak. 4.550 m.
- **11:10** 14 urtez azpikoak. 2.120 m.
- **11:40** 37. Altsasuko Kros herrikoia, Nafarroako Kros Laburreko Txapelketa eta Mastersak. 4.550 m.
- **12:10** 12 urtez azpikoak. 1.140 m.
- **12:30** 10 urtez azpikoak. 670 m.

Aitor Mendozarekin eta Ekhi Olabiderekkin batera.

Aurten eskolak ongi antolatu dituztela aipatu du Mendozak. Hiru diziplinak lantzen dituzte: jaurtiketak (diskoa, xabalina, pisua, vortex...), pista (harresi lasterketa, luzera saltoa, erreleboak, serieak...) eta krosa. "Monitore bakoitzak kategoriat bat hartzen du eurekin lan egiteko, baina gero kategoriat hori beste bi monitorean eskuetatik pasatzen da. Hau da, hiru monitoreek kategoriat guztiekin lan egiten bukatzen dugu, eta oso positiboa ari da izaten".

Aurreko larunbatean NKJ-en Kluben Arteko Txapelketa jokatu zen Lizarran. Sakanako hainbat herritan inauteriak zirenez, atleta sakandarren parte hartzean izugarri nabaritu zen. "Sakanako herri askotako korrikalariak huts egin zuten, normala zenez. Nafarroako Kluben Arteko Txapelketan gutxienez talde bakoitzeko lau korrikalaririk hartu behar zuten parte kategoriat bakoitzean puntuatu ahal izateko. Soilik 10 urtez azpiko mutilen kategorian puntuatu ahal izan genuen. Lagarren sailkatu ginen Dantzalekukoak, oso ongi. Gainontzeko kategorietan ere gure korrikalariak lehiatu ziren, eta oso ongi gainera, baina ezin izan zuten puntuatu".

Dominak lortzeko aukera

Altsasuko NKJ-en Banakako Kros Txapelketarako aurreikuspen positiboa du Mendozak. "Ziur gure neska-mutikoak ongi ariko direla. Dantzalekurekin 42 korrikalari aritzea, jada, lorpen handia da. Eta nik uste dut dominaren bat lortzeko aukera izango dugula, gure atletetako batzuk oso ongi lehiatzen direlako. Ikusiko dugu".

"Pena handiz" agurtu dira 2020ko txapeldunak

PILOTA Ezkurdiak eta Martijak ezin izan dute finalerdietako play-offetara sailkatzeko ametsa gauzatu eta inolako aukerarik gabe despedituko dute Binakakoa. Elordik eta Zabaletak euren hamahirugarren puntua litzatekeenarekin despeditu nahi dute ligaxka

Maidar Betelu Ganboa SAKANA Buelta emango ziotela. Azken partidak irabazi eta Binakakoa finalerdietako play-offetara sailkatuko zirela. Zaila zen, baina, zergatik ez? Ilusio horrekin borrokatu zuten Ezkurdiak eta Zabaletak. Baina, tamalez, ezinezkoa izan da. Asteartean sakandarrek 18 eta 22 galdu zuten Peña II.aren eta Mariezkurrenaren kontra, partida gogor bezain lehiatua euren itxurarik onena emanez. Baina ez zen nahikoa izan, eta 4 punturekin eta asteburuan jokatu den ligaxkako azken jardunaldiaren faltan, finalerdietako play-offetara sailkatzeko aukerarik gabe daude.

"Pena handia dugu. Tentsio handiko partida zen, eta nahi genuen, baina azken txanpan ez ginen bizpahiru tantoren abantailarekin aurretik jartzeko, berriak egiten zuten bezala. Erasoan ere ez dut uste nahi bezala jokatuko dudarik, eta pilotak ere behala gastatu ziren eta ez genuen



Martija eta Ezkurdiak. ARTXIBOIA

minik egiten. Dena den, dena utzi dugu kantxan, borrokatu dugu, baina pena handiz goaz etxera" azaldu du Ezkurdiak. Gaizki egindakoak aurretik zetozen. "Gure akatsik handiena txapelketa erdialdean egon zen,

beste enpresaren kontrako partidak hasi zirenean. Hor ez ginen ongi lehiatu, ez genuen gurea ongi egin. Orduetik, lau balarekin ari ginen jokatzeko, dena irabazi beharrekin. Eta horrela zaila da. Ilusio handia genuen txapelketa honetan, 2020ean elkarrekin irabazi ondoren, baina gauzak ez ditugu behar bezala egin eta penaz goaz" aitortu du. Pilotaren gorpila ez da geratzen, eta gaitzerdi. "Pixka bat lasaitu eta ea Buruz Burukoa mimoz eta ongi prestatzen dugun".

Binakako azken jardunaldiak, beraz, soilik finalerdietako play-offetako ordena erabakiko du. Ezkurdiak-Martijak igandean, Eibarren, Laso-Imazen kontra bukatuko dute Binakakoa. Elordi eta Zabaleta liderrek Jaka eta Aranguren izango dituzte aurkari larunbatean Iscarren. Liderrek euren 13. puntua litzatekeena lortu nahi dute, finalerdietara "sentsazio onenekin" heltzeko.



UTZITAKOIA

Berazak goitik hasi du txapelketa

ENDURO Espainiako Enduro Txapelketa asteburuan hasi zen, Santiago de Compostelan. Iaz Senior B mailako Espainiako enduro txapeldun izan zen Markos Beraza Vitoria irintarrak denboraldia ere goitik hasi du, Senior B mailako scratchean gailenduz. "Oso pozik nago. Orain, zenbait akats zuzendu eta erritmoa hartzen jarraitu beharra dago" azaldu du.

FUTBOLA Lagun Artea eta Etxarri taldeen arteko derbia

Inauteri asteburuko atsedenaldiaren ondoren, bueltan da Preferente maila, bi talde sakandarren arteko derbiarekin. Larunbatean, hilak 25, 15:45ean, Lagun Arteak Etxarri Aranatz hartuko du Lakuntzako Zelai Berrin, eta bi taldeek sailkapeneko azken postua izango dute jokoan. Egun berean, larunbatean, Altsasuk Salesianos taldea hartuko du, 15:45ean, Dantzalekun. Emakumezkoen Preferente Mailan Altsasuk Universidad de Navarra izango du aurkari, gaur, ostirala, hilak 24, 20:15ean, Iruñean.

Erregional mailan Altsasuren eta Amayaren kontrako partida igandean jokatuko da, otsailak 26, 16:15ean, Dantzalekun.



GOIERRI GARAIA

Zabala eta Katarain, Espainiakoan

MENDI LASTERKETAK Larunbatean Espainiako Igoera Bertikalen Trail Running Txapelketa jokatu zen Ojósén (Murtzia), 6 km eta 850 m desnibel positiboko proba. Miquel Corbera (39:00) eta Nuria Gil (47:08) izan ziren txapeldun handiak. Goierri Garaia taldeko Beñat Katarain (45:16) eta Marina Zabala (1:00:32) lakuntzarrak 30. postuan sailkatu ziren.

**ETXEBIZITZA
ETA
ERAIKUNTZA
GEHIGARRIA
2023**

HARREMANETARAKO:
publi@gualxe.eus • 661 523 245

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI
ASTEAZKENEKO 13:00AK BAINO
LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 /
kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 24

UHARTE ARAKIL Tailerra.

Sakanako gaztetxoaren artean genero rola, indarkeria matxistaren prebentzioa eta LGTBI+ gaiak lantzeko tailerra. 12 eta 16 urte bitarteko UharTE Arakilgo, Irañetako eta Arruazuko gazteendako. Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuak antolatuta eta Eihera kooperatibak bideratuta.
17:00etatik 20:00etara, udaletxean.

ALTSASU Batzarra.

Denon bizitzak erdigunera M8 prestatzeko Sakanako mugimendu feministaren asanblada irekia.
18:00etan, Gure Etxea eraikinean.

ALTSASU Elkarretaratzea.

Altsasun pediatrik orain! Osasun Publikoa guztientzat kontzentrazioa.
18:00etan, udaletxearen aurrean.

ETXARRI ARANATZ Manifestazioa.

Gradu erregresiorik ez. Asier etxera manifestazioa, Sarek deituta.
19:00etan, plazan.

LARUNBATA 25

ALTSASU Lasterketa.

51. Dantzaleku Herri Krosa. 37. Altsasuko krosa. Nafarroako zelai banakako txapelketa. 18 urtez azpiko, 16 urtez azpiko, 14 urtez azpiko, master, 12 urtez azpiko eta 10 urtez azpiko mailak.
10:00etatik aurrera, Dantzalekun.

BAKAIKU Tailerra.

Sakanako gaztetxoaren artean genero rola, indarkeria matxistaren prebentzioa eta LGTBI+ gaiak lantzeko tailerra. 12 eta 16 urte bitarteko Bakaikuko eta Iturmendiko gazteendako. Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuak antolatuta eta Eihera kooperatibak bideratuta.
10:30etik 13:30era, udaletxean.

ZIORDIA Topaketa.

Makroproiektu suntsitzaileen kontrako topaketa.
11:00etan, Amaraunan.

IGANDEA 26

OLAZTI Antzerkia.

Aboon Teatre konpainiaren *Baby Esferic* haurtxoendako antzezlan. 6 hilabete eta 3 urte bitarteko haurrei zuzenduta.
12:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Antzerkia.

Shere Khan. El otro libro de la selva antzezlanaren emanaldia. Victoria

ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO NAGUSIAN

Living gaurkotasunezko filmaren emanaldia
Ostirala 24 19:00
Igandea 26 19:30

IORTIA KULTUR GUNEKO ARETO TXIKIAN

Decision to leave zineforum filmaren emanaldia
Igandea 26 19:30

Álvarez Musetti olaztiarrak idatzitakoa.
17:00etan, Iortia kultur gunean.

ASTELEHENA 27

ALTSASU Elkarretaratzea.

Pentsio duinen alde.
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

ASTEARTEA 28

ETXARRI ARANATZ Ipuin kontalaria.

Sergio de Andrés ipuin kontalariaren ipuin dibertigarriak.
17:30ean, liburutegian.

OSTEGUNA 2

ALTSASU Batzarra.

Denon bizitzak erdigunera M8 prestatzeko Sakanako mugimendu feministaren asanblada irekia.
18:00etan, Gure Etxea eraikinean.


HIRIBERRI ARAKIL Film proiektzioa eta solasaldia.

La Estrella filmaren proiektzioa eta solasaldia, Arakilgo Emakume Taldeak antolatuta.
18:30ean, kontzeju etxean.


IRURTZUN Solasaldia.

Emakumei buruzko XXX. Jardunaldiak: Kristalezko begi bat liburuaren solasaldia Miren Agur Meabe idazlearekin.
19:00etan, Pikuxarren.

OSTIRALA 3

ETXARRI ARANATZ Tailerra.

IRURTZUN Rafa Etxarri artistaren *Aurkitu Ezank Hirea Aurkitu Gaitunk Geurea* pintura erakusketa. *Martxoaren 12ra arte. Pikuxar tabernan.*



ALTSASU Altsasuko inauterietako erakusketa. *Otsailaren 26ra arte. Iortia kultur gunearen erakusketa aretoan.*

Sakanako gaztetxoaren artean genero rola, indarkeria matxistaren prebentzioa eta LGTBI+ gaiak lantzeko tailerra. 12 eta 16 urte bitarteko Etxarri Aranazko eta Ergoienako gazteendako. Sakanako Mankomunitateko Berdintasun zerbitzuak antolatuta eta Eihera kooperatibak bideratuta.
17:00etatik 20:00etara, kultur etxean.

ZIORDIA Liburu aurkezpena. Asisko Urmenetaren *Amair! Libera State* liburuaren aurkezpena eta solasaldia.
19:00etan, liburutegian.

ETXARRI ARANATZ Kontzertua. Txalainak Hertzainaken bertsio taldearen kontzertua.
23:00etan, Leku Ona tabernan.

ZORION AGURRAK



Gorka Galarza
Zorionak! 8 urte ein ttuzu ta mutil alai bet einda zaude. Segi zuu afiziyuekin gozaten ta izen zoriontsu zuu egunien. Muxu asko. Zuu fameliye."



Bazkide zozketa

OTSAILEKO SARIDUNAK

1. SARIA

Sandra Madinabeitia Gonzalez (Arbizu)

2. eta 3. SARIAK

Javier Mauleon Ijorra (Etxarri Aranatz)
Ander Muñoz Garzia (Etxarri Aranatz)
Sebastian Andueza Berastegi (Lakuntza)



Erviti aluminio PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Etxe zaharren
berriztatze eta birgaitzea

IRAGARKI SAILKATUAK

HIGIEZINAK

SALGAI

Etxarri Aranatzeko pisu zentrikoa salgai: hiru logela, bi komun, sukaldaria, egongela eta trastelekua, 78 m karratu ditu eta bizitzera sartzeko prest dago. Informazio gehiago 628 265 413 Edume.

LANA/NEGOZIOAK

ALOKAGAI

Altsasun Coworking bulegoa autonomo eta urruneko langileentzat: Altsasun 4 edo 5 pertsonen artean partekatzeko bulegoa; Wifi, inprimagailua, berogailua, komuna eta officea ditugu. Aukera paregabea! Informazio gehiago 948 562 604 edo 603 417 554 telefonoetara deituz.

LAN ESKAITZA

Aralarko San Migel Santutegiko taberna jate-teen: Zerbitzariak eta sukaldaria (edo sukaldari laguntzailea) behar ditugu asteburutan lan egiteko. Informazio gehiagorako deitu 680 444 457.

LEHIAKETA

Gozamenez sexualitateari buruzko film laburren lehiaketa: Sexu eta Harremanei buruzko istorioa leloa duen lehiaketan sexualitatearen ikuspegi positiboa ematen duten ikus-entzunezkoak aurkeztu daitezke, banaka edo taldeka, 12 eta 13 urte arteko sakandarrek parte hartu dezakete, horretarako Altsasuko Intxostiapunta gazte txokoa izena eman behar da martxoaren 5a baino lehen. 100 eta 200 euroko sari ezberdinak daude jokoan. Bi sari epai-mahaiak emanen ditu eta bestea gazte altsasuarrek herri bozketa bidez aukeratzeko dute. Aurreko edizioetako lanak www.gozamenez.com web orrian ikus daitezke.

IKASTAROA

Emakume langabeek gaitasun digitalak eskuratzeko doako ikastaroa Altsasun: otsailaren 27tik martxoaren 10era, goizeko 9:15tik 13:15ra. Intxostiapunta gaztetxokoa. Informazioa eta izen ematea 628 328 593 tfoan edo iraola@altsasu.net

iraola@altsasu.net helbide elektronikora idatziz.

Adinduendako doako ikastaroa gaitasun digitalak eskuratzeko Altsasun: Informazioaren eta komunikazio teknologiak modu praktikoan erabiltzen ikasteko. Otsailaren 27tik martxoaren 10era, aukeratzeko bitxandatan, 15:00etatik 17:00etara edo 17:00etatik 19:00etara, Intxostiapunta gazte txokoa. Izena emateko 628 328 593 telefonora deitu edo miraola@altsasu.net emailera idatzi.

OHARRAK

Abeltzaintza industriaren aurkako diru bilketa: Sustrai Erakuntza Valle de Odieta makroerregioaren aurkako auzian herri akusazio gisa gauzatu da. Ingurumenaren aldeko eta lurraldearen defentsarako borroka indartzen eta babestea da. Ekimen hau aurrera atera ahal izateko dirua biltzeko kanpaina bat burutzen ari da, edozein ekarpen ongi etorria izango dela diote. Jarraibideak web orrialde honetan dituzte: <https://sustraiarakuntza.org/>.

Altsasuko kontsumitzaileen udal bulegoa: Nafarroako Kontsumitzaileen Iratxe Elkarteak atenditzen du aurretik 012 telefonoan hitzordua hartuta. Doako bitartekaritza eta laguntza juridikoa eskaintzen dute. Otsailaren 28an etorriko dira eta martxoan 7an, 14an, 21ean eta 28an.

Mank-ek ur kontagailuen irakurketa egingo du: Sakanako Mankomunitateak jakinarazi duenez, gaurtik aurrera ur kontagailuen irakurketa egingen du Irurtzunen, Lakuntzan, Arbizun, Bakakun, Iturmendin, Urdiainen eta Olatzagutian. Ibarreko erakundetik jakinarazi dutenez, irakurketa egiterakoan langileek etxeren batean bakarren bat opatzen ez badute oharra utziko diote. Etxejabeak hartan bere ur kontsumoaren irakurketa idatzi eta Mank-i jakinarazi beharko dio. Beltzez dauden komaren aurreko zenbakiak hartu behar dira. Horretarako hiru bide daude: 948 464 867 telefonora hots eginez, 663 399 732 telefonora Wha-

tsapp mezua bidaliz edo ura@sakana-mank.eus posta elektronikoko helbidera mezua bidaliz.

Euskara hutsezko Udalekuek joango diren haur eta gazteendako dirulaguntzak: Udalekuak 5 egun eta 15 egun bitartean irau behar dute eta ekainaren 15etik irailaren 30era bitarte burutu behar dira. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian eskura dezakezue.

Euskalduntzen edo alfabetatzen ari direnendako dirulaguntzak: 2022ko uztailaren 1etik 2023ko abuztuaren 31ra arte egindako ikastaroen matrikulak lagunduko dira, kilometrajea ez da diruz lagunduko. Ikastaro estentsiboak, trinkoak, barnetegiak eta informatika bidezkoak, C2 mailakoak barne. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko uztailaren 31n amaitzen da. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

Errotuluak euskaraz jartzeko dirulaguntzak: Establezimendu komertzialei, ostalaritzakoei eta elkartei zuzendutako dirulaguntzak dira. Diruz lagunduko dira errotuluak, toloak eta ibilgailu komertzialen errotulazioa. Euskara hutsean idatzita dagoen errotulua jartzen duenari %50 ordainduko zaio, gehienez 500 euro emanen zaizkio. Euskaraz eta erdaraz idatzita daudenei %25a, gehienez 250 euro. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urriaren 31n amaitzen da. Informazio gehiago www.sakana-mank.eus web orrian.

Altsasuko Elkartasun azokarako bilketa solidarioa: Erabiltzen ez dituzun (arropa, jostailu, maindire eta abar) eta egoera onean dauden gauzak Altsasuko Erkuden kaleko 8. zenbakian dagoen lokalera (Sociedad deportiva zena) ekarri ostiralean, 10:00etatik 13:00etara. Bildutakoarekin apirilaren 23an Elkartasun Azoka egingo da. Informazio gehiago anitzartean@sakana-mank.eus emailera idatzi edo 648 070 710 telefonora deitu.

iragarki@guaixe.eus

www.iragarkilaburrak.eus



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 55,90 €/106,5 €/143,70€ prezio hauek BEZa barne dute.
- Bazkideek %10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.



Hemen eta online iragarki laburrak .eus

ESKELA



Miguel Solis Albo

'Wili'
—Goian bego—

Beti gogoratuko zaitugu

81eko kinta
Altsasu

JAIOTZAK

• **Mohamed Sakhi Cherif**, otsailaren 15ean Etxarri Aranatz

HERIOTZAK

• **Maribel Gastaminza Ramos**, otsailaren 18an Olaztin
• **Juana Yaben Preboste**, otsailaren 20an Uhart Arakilen

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.



IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN

Izarra, Nafarroako tanatorioa
Gure lurra, gure jendea, gure sustraiak

BEILATOKIAK
ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI-ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 • www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70
@Grupolrache
f Grupolrache
🌐 www.tanatoriosirache.es

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Bertsolari alderdiagatik da ezagunagoa Ekain Alegre Gil, baina bere burua musikari gehiago ikusten duela aitortu du. Musika ikasketak sei urterekin hasi zituen, Altsasuko Musika eta Dantza Eskolan gitarra jotzen ikasi zuen, eta gero kontserbatorioan erdi mailako ikasketak egin zituen. Musika eskolatik sortutako El Txino Kudeiro rock taldean, ondoren Kaskarrako izan zen, parte hartu zuen. "Kontzerturen batzuk eman genituen". Bertsioak jotzen zituzten gehien bat eta taldearen azkenengo etapan abestiren bat ere egin zuten. Orain, Alegrek Elektrokela Elektrotxarangan jotzen du eta ordenagailuarekin abestien bertsioak egiten ditu.

Haize Berriak bandaren urteurren kontzertuan Deserrite taldearekin zuk moldatutako abestia jo zuten.

Deserritekin jo nahi zuen eta denboraz gaizki zihozenez ez zuten denborarik beste abesti bat sortzeko. Kontserbatorioan konposizioa eta konponketak irakasgaia izan nuenez, niri esan zidaten *Putzuaren barrunbean* abestiaren konponketak egiteko. Saiatu nintzen ahal nuena egiten eta lehenengo izateko nahiko txukun gelditu zen. Gozada bat izan zen. Deserritekoek oso ongi egin zuten, oso ongi moldatu ziren konponketetara eta banda ere oso ongi aritu zen. Oso gustura gelditu nintzen.

Nola egiten da abesti baten moldaketa?

Nik ez daukat esperientziarik eta zerotik hastea bezala izan zen. Kontserbatorioan Joselurekin izan nuen irakasgai horretik tiraka aritu nintzen. Kantaren akordeak kontuan hartu behar dira eta zer non sartu begiratu behar da. Instrumentu bakoitzak kantari zer motibo eman behar dion begiratu behar da ere. Bandaren parte kantaren influentzia izan behar da. Tonua, notak eta kolorea kontuan izan behar dira eta horrekin jolastu. Gero ikusi behar da ere oso kargatuta ez geratzea eta jo ote daitekeen. Lana izan nuen, bai. Uste nuena baino gehiago. Baina gustura. Ikasteko prozesu bezala oso ongi.

Abestien bertsioak sortzen dituzu ere. Nola sortu zen proiektua?

Teklatu txiki bat erosi nuen hasiera batean ordenagailuan zerbait egin nahi banuen izateko. Baina 2021eko udan pentsatu nuen: "Zer gatik ez dut Altsasuko zortzikoaren

"Musika eta abestiak sortzeko bide asko daude"

EKAIN ALEGRE GIL MUSIKARIA

Altsasuarrak euskal abestien bertsio elektronikoak edo remix-ak egiten ditu. Amaiur Goikoetxea abeslariarekin batera proiektu bat dute martxan



Ekain Alegre Gil musikaria. UTZITAKOIA

bertsio bat egiten?". Neuzkan baliabide urriekin egin nuen eta nire youtube kanalera ([youtube.com/@3k4in62](https://www.youtube.com/@3k4in62)) igo nuen. Egin nuen, ondo gelditu zen, eta beste bat egiten hasi nintzen, eta gero, beste bat.

Zein abesti egin dituzu?

Saiatzen naiz abesti guztiak, igo ditudan guztiak, euskaraz izatea. Ez dago arrazoi berezirik, euskaraz egin nahi ditudalako. Berriena Burutik-en bat izan da, Ruper Ordorikaren pare bat ditut, Berri Txarrak taldearen baten bat eta Eguberrietarako *Ole Olentzeroren* bertsio bat egin nuen. Nire beste alderditik tiraka, Bertsolari Txapelketako sintoniaren remix bat egin nuen ere. Youtubeko kanalean zaharragoak ere badauzkat, baina beste programa bat erabiltzen nuen eta soinu aldaketa asko nabaritzen da. Orain beste programa profesionalagoa erabiltzen dut, eta nahiko nabaritzen da.

Nolakoa da abesti bat sortzeko prozesua?

Bertsio elektronikoak dira. Probatzen izaten da. Gustatzen zaidan abesti bat hartzen dut eta horren bertsioa egitea gustatuko litzaidakela pentsatu ondoren bideragarria ote den ikusten dut

"EUSKAL ABESTIEN BERTSIOAK EGITEN DITUT; MOMENTUZ YOUTUBERA IGO DITUT"

eta baiezkoa bada zerbait egiten hasten naiz. Lehenengo gauza abestiaren pulstua zein den ateratzea da. Interneten badago programa bat, abestia jartzen duzu eta ahotsa bakarrik deskargatzen dizuna. Horrengainean gauzak sartzen eta probatzen joaten naiz. Batzuetan buruan dudak guztia ez dut sartzen eta gauzak aldatzen joaten naiz.

Lan eta ordu asko dira, ezta?

Bai. Ez da ikusten atzean dagoen lana. Askotan pentsatzen da musika egiteko gitarra bat hartu eta jo egin behar dela. Jendeak ez du ikusten badaudela musika egiteko beste bide batzuk. Nik uste dut hori oso errotuta dagoela Sakana bezalako lekuetan tradizio musikal batetik gatozela non rock talde bat musikariak diren. Baina ez da entsegu lokal batean sartu behar sortu ahal izateko. Nik egiten dudana, adibidez. Horren atzean ez dut esango lan gehiago dagoenik, baina badago lana.

Zer nolako harrera izan dute?

Elektrotxaranga kideen artean ezagunak dira nahiko turra ematen diedalako abestia atera aurretik pasatzen diedalako haien iritzia jakiteko. Zortzikoarekin amodio-gorrotto harremana daukat lehenengotarikoa izan zelako eta soinu pila bat nabaritzen da. Tabernan jartzen dutenean esaten didate, eta ez zait gustatzen. Remasterizatzea pentsatzen ari naiz.

Estudiotik atera eta emanaldiak ematea pentsatu duzu, DJ antzera?

Ez. Ez dauka zerikusirik egiten dudana DJek egiten dutenarekin. Abesti zerrenda bat egiten dute eta nahasten dituzte. Meriturik kendu gabe, areto batean jendea dantzaratzen egon behar direlako. Baina nirea desberdina da. Nire lana produktore lana da. Soinuak bilatu eta abar.

Etorkizunera begira?

Egin ditudan abestiak Youtubera igo ditut. Etorkizunera begira Amaiur Goikoetxearekin proiektu bat daukagu pentsatuta. Lau kanta edo ateratzea aurreikusidugu. Bertsioak izango dira, baina ahotsa abestietatik atera beharrean, berak abestutakoak izango dira. Hasieran zerbait informala egiteko esan genuen, baina ikusten ari gara momentuz daukagunarekin materiala nahikoa dagoela. Ez dakit noiz aterako dugun, laster izatea espero dut. Remixekin jarraituko dut ikasketa prozesu bat delako; hau ikasteko egiten dut.



Irurtzungo Musika Eskolako ikasleak Inauterietako kontzertuaren amaieran agurtzen. UTZITAKOA

Mozorrotutako musika eskolako emanaldia

Irurtzungo musika eskolak herriko ihoteei ongiatorria eman zien herriko kultur etxean emandako kontzertu berezian: Inauteri kontzertua. Aurtengo emanaldiaren gaia filmak ziren, eta musika ikasleek pelikuletako pertsonaiak bihurtuta soinu bandak jo zituzten

IRURTZUN

Urtero, ihote garaian, Irurtzungo musika eskolak inauterietako kontzertua eskaintzen du herriko kultur etxean. Gai bat aukeratzeko dute eta horren inguruko mozzorroak prestatu eta musika ikasleek gaiari lotutako abestiak interpretatzeko dute emanaldi berezi honetan. Otsailaren 15ean egin zuten 2023ko inauterietako kontzertua, eta haren bidez, herri hasiera eman zieten ihoteei. Emanaldiaren aurtengo gaia filmak izan da. Hortaz, kontzertuan filmetako musika eta soinu bandetako abestiak abestu, jo eta dantzatu zituzten.

Lorena Arangoa aktore irurtzungundarra aritu zen aurkezle

Irurtzungo musika eskolaren inauterietako kontzertuan eta abestiak aurkeztu eta azaldu ez ezik, musika ikasleekin elkarrengin ere egin zuten. Aktoreak "oso lan ona eta dibertigarria" egin zuela esan dute musika eskolatik. Interpretatu zituzten pelikulak abestien artean, *Adams familiaren* soinu banda, *Sister Act* filmaren *Oh happy day* eta abar nabarmendu ziren

Musika eskolaren ikasurteko emanaldien programazioaren barruan sartzen da inauterietako kontzertua. Aurreko urteetan pertsonaia mitologikoak, piratak, munduko musikak, sorginak, marrazki bizidunak, Beatles, Oskorri eta beste hainbat gai

joratu izan dituzte. Musika Eskolatik jakinarazi dutenez, kontzertu hau oso motibagarria eta dibertigarria da ikasleentzat, abesteaz, jotzeaz eta dantzatzeko gain, beste ikasurteko ikasleekin elkartzen direlako: "Mozorrotu egiten dira eta elkarrengin dute". Gainera, musika erreperitorio anitza ezagutzeko aukera ematen die.

Helburuak

"Irurtzungo musika eskolaren helburuetako bat da ikasleek musikaz gozatzea eta harekin lotura sortzea", azaldu dute musika eskolatik. Musika eguneko bizitzan txertatzea da kontzertuaren xede nagusietako bat.

Abandonatua, ez ahaztua

Altsasuko Izarra beilatokian aurkeztu zuen Castillo Suarezek, lagunartean, 'Alaska' liburua. Garbiñe Petriatik anfitrioi lanak egin zituen eta 'Alaska' liburuan Xabier Mendigurunek aipatu zuen Castillo Suarez izan zela ez-lekuegiaz hitz egiten entzun zuen lehena. Suarezek liburuaren 'Sarrera' irakurri zuen, Olatz Gardek kontrabaxua jotzen zuen bitartean.



Haurtxoendako lurrari buruz ikasteko antzezlan

Otsailaren 26an, igandea, ihote garaia emateko Olaztiko kultur etxean Aboon Teatre konpainiaren *Baby Esferic* ikuskizuna izanen da (12:00etan). Sei hilabete eta hiru urte bitarteko haurtxoendako bideratutako antzezlan da, eta familiari guztiari zuzenduta. Mugimenduen eta objektuen bitartez, lurrari eta bere oinordekoei omenaldi bat da.

Gizakiak planetarekiko duen magia hitz egiten du, baita Lurrean bizi diren biztanle guztien historiaz eta paisaiei buruz ere. Oso antzezlan bisuala da, objektu borobilekin eginda, eta horregatik haurtxoen interesa pizten du.

'Amaiur! Libera state' liburuaren aurkezpena, Ziordian

Martxoaren 3an, ostirala, 19:00etan, Asisko Urmeneta komikilaria Ziordiko liburutegian izanen da *Amaiur! Libera State* liburuaren aurkezpena eta solasaldia egiteko. Albumean duela 500 urte Nafarroaren konkista-gerraren kronologia eta okupazioaren makineria 1512tik 1422ra aztertu dute, baita inbasioaren kontrako erresistentzia "epikoa" ere. Liburuan agertzen diren protagonistetako batzuk Jakue Belatz Medrano, Maria Hozta, Johannes Arremiritz Bakedao, Johanikot Arberoa eta abar dira. Lana egiteko dokumentazio ugari aztertu dute eta herriari eskaini diote album formatuan.

BAZTERRETIK

IRATI EIZAGIRRE SAGASTIBELTZA

Ama hizkuntzaren nazioarteko eguna



"Sexualitateak bizitzan zeharkatzen gaitu"

Itxaso Torregrosa Arteaga sexologoa hilabeteko azken ostiraletan Intxostiapunta gazte gunean egoten da, Sexgune zerbitzuan. Torregrosak espazio bat eskaintzen dio sexualitateari Altsasuko gazte gunean; zalantzak argitzeko edo hitz egiteko gunea da

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

1 Nola definituko zenuke Sexgune zerbitzua?

Aholkularitza deitzen diot. Batzuetan galdera zehatzak erantzuteko espazio bat da; beste batzuetan, lagunartean sexualitateari buruz hitz egitekoa. Edonor hurbil daiteke, edozein zalantza edo kezka dela; zerbait hurbila da. Ez da erraza sexologoak zerbitzu publiko batean aurkitzea, eta eskertzekoa da Altsasun hau izatea.

2 Zein adin tarterako dago bideratuta?

Intxostiapuntan denez, gazteei bideratuta dago, baina adin tarter hori nahiko zabala da. Datozenak 12 eta 21 urte bitartekoak izaten dira, baina nahi duena hurbil daiteke, arazorik gabe.

3 Zer aholkatzen duzu?

Sexualitatea bizitzan zeharkatzen gaituen zerbait da. Askotan, koitora eta harreman heterosexualera mugatzen da, eta mugatzen denean jendeak ez du sexologoaren beharrik sentitzen. Baina, modu zabalagoan ulertzen badugu (norberak bere burua ezagutzea, onartzea, besteekin



Itxaso Torregrosa Arteaga sexologoa Sexgunaren espazioan.

harremantzeko tresnak izatea, ongi sentitzea, autoestimua eta abar), gauza pila bat sartzen ditu barruan. Zalantza zehatz bat izan daiteke, identitatea, orientazioa, desiatzeko formak, beldurrak, zeloak... edo, beste batzuetan, gazteak etortzen dira galdera

zehatzik gabe eta askotariko gaiak lantzen ditugu jolasen bidez...

4 Oro har, zer galdetzen dute zerbitzura bertaratzen diren gazteek?

Denetarik, pixka bat. Orokorrean ezjakintasun handia egoten da.

Gai asko izaten dira, eta ni saiatzen naiz egiten dudana guztian aniztasuna ere presente izaten.

5 Aholkularitza zerbitzua baino zerbait gehiago bada.

Askotan, bai. Nabaritzen da ikastetxean landu ez badute, hutsunea sentitzen dutela.

6 Nolako da sexu hezkuntza ikastetxeetan?

Ni ez naiz bereziki baikorra. Geroz eta gehiago eta lehenago egiten da, baina askotan hitz egiten da pornoaren eta sare sozialen inguruan eta batez ere, sare sozialek geroz eta botere eta eragiteko gaitasun handiagoa dute gazteengan. Horren kontra egiteko, heziketa da aukera bakarra. Sexologiatik defendatzen da sexu hezkuntza bizitzaren etapa guztietan egin behar dela, eta ahalik eta goizen hasita, modu konstante batean. Egiten da, baina oso puntualki. Suhiltzaileak bagina bezala, kezka bat dagoenean deitzen digute sua itzaltzeko, baina elikatu behar den zerbait da.

7 Lotsa dago sexuari buruz hitz egiteko?

Baietz esango nuke. Oraindik etxeetan ez da asko hitz egiten eta ikastetxeetan ere gutxi hitz egiten da. Lagunartean agian gehiago, baina helduen artean kostatzen zaigu. Ziur nago batzuk ez direla hurbiltzen lotsagatik.

8 Pornoari buruz asko hitz egiten da. Nola ikusten duzu gaia?

Gazteek mundua ezagutu behar dute eta, beste iturririk ez dutenez, Internetera, pornora eta sare sozialetara jotzen dute. Arazoa da ez dutela informazioa filtratzeko errekurtsorik. Kontua ez

da informazio gutxi dutela, baizik eta ez dutela informazio on nahikorik. Informazio txar edo kontrolrik gabea asko dute, baina sexu heziketa handiagoa behar dute informazio hori filtratzen, irizpide propioa izaten ikasteko. Ereduak jasotzen ari dira etengabe, eta horrek autoestimuan eragin dezake. Sexu hezkuntza gutxi eta influencer asko.

9 Sexualitatearekiko harremana aldatu da?

Gauza batzuetan berdin jarraitzen dugu eta beste batzuetan, berriz, asko aldatzen ari da. Informazio mugimendu asko dago, etxetik kanpo. Ikastetxeetara joaten naizenean, argi ikusten dut zalantzak duela hamar urteko berberak direla. Aniztasunarekin poliki-poliki gauzak aldatzen goaz, baina asko falta da oraindik.

10 Zergatik da garrantzitsua horrelako zerbitzu bat izatea?

Behar baino gutxiago egiten delako, eta egiten dena hezkuntza formalaren bidez egiten da. Baina hezkuntza ez formalean horrelako espazio batean lasai eta lagunartean egotea garrantzitsua da. Hilabetero eskaintzen denez, gazteek ez dute beti beharko, baina kezka sortzen direnean etor daitezke. Udalak zerbitzua mantentzeko apustua egiten du.

11 Zer egin behar da erabiltzeko?

Beharra duena nahi duenean etor daiteke. Hilabeteko azken ostiraletan, 17:30etik 20:30era. Doakoa eta konfidentziala da. Hezitzaileek aurretik abisatzea nahiago dute, Intxostiapuntako kontaktu bideetatik. Intimitate gehiago nahi bada, beste toki bat aukera daiteke, beste ate batetik sartu...

DISEINU GRAFIKOA

DISEINU KORPORATIBOA

DISEINU EDITORIALA

ILUSTRAZIOA

WEB DISEINUA

PUBLIZITATEA

ITZULPENGINTZA

ETA ZUK, ZER BEHAR DUZU?

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

gk DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA **fo**

619 821 436 | Foru plaza, 23-1. Altsasu
info@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus